



ONDARROAKO
EMAKUMEENTZAKO
JABEKUNTZA
ESKOLA





2011/2012ko ikasturtean...

Munduko emakumeek elkartasunean eta elkartrukean

- **Munduko emakumeen literatura.**
Egutegia: Urritik maiatzera.

Feminismoa

- **Emakumeon historia; kontatu ez digutena.**
Egutegia: Urriaren 21etik azaroaren 18ra (barikuetan).
- **Autodefentsa feminista.**
Egutegia: Otsailak 10 eta 11.
- **Mugimendu feministaren politika sexuala/**
Política sexual del movimiento feminista.
Egutegia: Martxoak 2 eta 3.
- **Feminismo gaietan jantzi!**
Egutegia: Martxoaren 17tik 31ra, zapatuak.
- **Simone de Beavouir tailerra.**
Egutegia: Martitzenetan. Martxoaren 20tik maiatzaren 15era.

Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna

- **"Nomantxakolorea", hilekoa birpentsatzen.**
Egutegia: Azaroak 19 (zapatua).
- **Gorputzarekin bat.**
Egutegia: Otsailak 24 eta 25.
- **Emakumeen denbora/Tiempo en femenino.**
Egutegia: Hamabostaldian behin, astelehenetan, otsailetik maiatzera: otsailak 6 eta 20, martxoak 5eta 19, apirilak 16 eta 30.

Kultura birdefinitzea

- **Grafikak hirian. Esparru publikoa aktibatzen.**
Egutegia: Zapatuetan: Urriaren 15etik 29ra.
- **Geografia feministak euskal literaturan.**
Egutegia: Urtarrilak 27-28.
- **Banda feminista.**
Egutegia: Urtarrilak 14 eta 21, otsailak 4 eta 18.
Bigarren maila: Banda feminista: hiriko danborrak, hotsak, testuak eta kale antzezpenerako mugimenduak ikuspegi feminista batetik. / Taller banda para mujeres en tambores urbanos, voces, textos y movimientos escénicos callejeros desde una perspectiva feminista.
Egutegia: Apirila-maiatza.
- **Litografia ikastaroa.**
Egutegia: Maiatzaren 21etik 25era.





Matrikula egiteko informazioa

Hiruhilabeteko ikastaro bakoitzaren **prezioa: 5 €**. Oinarrizko errenta jasotzen dutenek eta 20 urtetik beherako andra gazteek, ostera, %50eko deskontua izango dute.

Plaza kopurua: talde bakoitzeko, gutxienez, 7 lagun. Ikastaro bakoitzeko lagun-kopurua bete ahala itxi egingo da matrikulazioa; bestela, ikastaroa hasi arte egin daiteke matrikula.

Izena emateko: matrikula-fitxa bete eta ordainketa egin behar da Udal Diru-Bilketa bulegoan (Kantoipe 3an) edo hurrengo kontu zenbakira diru-sarrera eginda: 2095 0058 12 3830434777. Ordainagirian hauek agertu behar dira: izena, bi abizen eta "eskola" hitza. Matrikulazioa ez da onartuko matrikula-fitxa bete eta ikastaroa ordaindu arte. Eta matrikula egindakoan, berriz, baja eman ez gero ez da dirurik itzuliko.

Kredituak: **EHUK aukera libreko kredituak ematen ditu.** Honek soilik balio du Unibertsitateko plan zaharretan dauden ikasleentzat eta gutxienez, 8 orduko ikastaroak aprobetxamenduz eginez gero.



Munduko emakumeek elkartasunean eta elkartrukean

Munduko emakumeen literatura: Turkia, Kurdistan, Siria, Libano, Jordania, Zisjordania, Arabia saudi, Yemen, Iran, Irak, Israel, Palestina, Sahara, Maroko, Tunisia, Aljeria, Egipto...

Prestatzailea: Isa Castillo (Skolastika).

Literaturaren bitartez, munduko hainbat herrialdetako kultura, erlijio eta gatazka ezagutuko ditugu eta horiek emakume desberdinen sortzen dituzten bizi-baldintzen eta arazoen gaineko irakurketak izango ditugu. Eztabaidagai bizi-bizikiak zabaldu zaizkigu azkenaldian gure jendartean; bada, guk gai horietako protagonisten irizkiak aztertuko ditugu.

32 ordu. Barikuetan, hilean behin.

Egutegia: Urrik maiatzera: urriak 21, azaroak 11, abenduak 16, urtarrilak 20, otsailak 17, martxoak 16, apirilak 27 eta maiatzak 18.

Ordutegia: bariku horietan: 17:00etatik 21:00etara.

Matrikula: 10 €.

Lekua: Udal hitzaldi aretoa / Guzur-Etxea.



Feminismoa

Emakumeon historia; kontatu ez digutena

Prestatzailea: Piedad Dorado (berdintasuna eta hezkidetzaren irakaslea).

Feminismoa: hain erabilera gaiztoa izan du hitz horrek eta hain oker ulertu da borroka!. Esamesak, txarto ulertuak... Begirada berria behar dugu, informazioaren argitan. Jakitearen beharra ase behar dugu, behar-beharrezkoa dugu jakintza eta beharrezkoa jakin beharrezkoa gureganatzea: emakume askoren izenak isilpean gordeirik, agertu ez liburuetan, emakume askoren eginahalak eta lorpenak galdurik historian. Euren historia geurea ere bada. Oraintxe dugu ezagutzeko aukera.

10 ordu.

Egutegia: Urriaren 21etik azaroaren 18ra. Barikuetan.

Ordutegia: 16:00etatik 18:00etara.

Matrikula: 5 € (Boga-Bogako bazkideentzat dohainik).

Lekua: Boga-Boga emakume elkartearen lokaletan.

Autodefentsa feminista

Prestatzailea: Maitena Monroy Romero
(Fisioterapeuta eta indarkeria sexistan aditua).

Tailer honen helburua da benetako aukerak eskaintzea emakumeei eraso sexistei aurre egiteko, emakumeok aukera izan dezagun indarkeria matxistari aurre egiteko beharrezko ditugun jokamolde feministetan sakontzeko, Autodefentsa feministak jabekuntzan aurrera egiten laguntzen digu eta baliabideak ematen dizkigu izan dezagun eraso bati aurre egiteko edo eragozteko, beste emakume batzuekin elkartzen gaitu, talde bezala indarra ematen digu eta maila indibidualean, aldiz, ahalmena.

El objetivo de este taller es ofrecer a las mujeres una alternativa real para prevenir las agresiones sexistas y profundizar en las claves feministas necesarias para el análisis y la prevención de la violencia machista. Buscamos acercarnos a la autodefensa feminista como instrumento que nos empodera, nos da recursos para evitar y hacer frente a una posible agresión, nos une a otras mujeres, nos da fuerza como grupo y autoridad a nivel individual.

12 ordu.

Egutegia: Otsailak 10 eta 11

Ordutegia: Barikua: 17:00etatik 21:00etara. Zapatua: 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era.

Matrikula: 5 €.

Lekua: Ondarroako Kofradia zaharra.

Gazteleraz izango da.



Mugimendu feministaren politika sexuala

Política sexual del movimiento feminista

Prestatzailea: Cristina Garaizabal (Colectivo Hetarira. Feminista eta Psikologoa).

Ikastaro honetan landuko dugu nola heldu dion mugimendu feministak politika sexualari, hasieretatik gaur egunera arte. Horretarako honako eztabaidagai hauen gainean gogoeta egingo dugu: sexualitatearen gaineko ikuskera ezberdinak, prostituzio eta pornografiari buruzko eztabaida eta arrazoibide ezberdinak, lesbianismoa aukera politiko bezala, sexualitatearen eta indarkeria matxistaren arteko erlazioa, transexualitatea, nortasun sexualak eta queer teoria, besteak beste.

En este curso hablaremos sobre cómo se ha abordado la cuestión de la política sexual en el movimiento feminista desde sus comienzos hasta el día de hoy. Para ello se reflexionará en torno a cuestiones como: las diferentes concepciones sobre sexualidad, debates y discursos diversos sobre prostitución y pornografía; lesbianismo como opción política; relación entre sexualidad y violencia machista; transexualidad, identidades sexuales y teoría queer, entre otras.

8 ordu.

Egutegia: Martxoak 2 eta 3.

Ordutegia: Barikua: 16:30etik 20:30era.

Zapatua: 9:30etik 13:30era.

Matrikula: 5 €.

Lekua: Kofradia zaharra.

Gazteleraz izango da.

Ikastaro hau Ermuko eskolarekin batera antolatuko da.

Feminismo gaietan jantzi!

Prestatzailea: Saioa Hernandez (Feminista eta sexologoa).

Ikastaro hau feminismoaren pentsamendua eta praktikak ezagutzeko interesa duten emakumeei zuzenduta dago. Noiz sortu zen mugimendu feminista, nola, zertarako...? Alde batetik, hizpide izango ditugu jendartearen aldaketetan eragina izan duten pertsonak eta teoria feminista desberdinek eragindako iraultzak; eta bestetik, jantzi egingo dugu gure burua mugimendu feministak, gaur egun, darabiltzan kontzeptuetan eta eztabaidetan.

10,5 ordu. 3,5 orduko 3 saio.

Egutegia: Martxoaren 17tik 31ra, zapatuak.

Ordutegia: 10:30etik 14:00etara

Matrikula: 5 €.

Lekua: Kofradia zaharra.

Simone de Beauvoir Tailerra

Prestatzailea: June Gonzalez Bertiz (Feminista eta Filosofian lizentziatua).

Simone de Beauvoirren bizitza eta lana ezagutuko dugu, bereziki, haren "El segundo sexo" liburua. Gure helburua da berreskuratzea filosofo horrek mugimendu feministan egindako ekarpenak. Horretarako, erreflexiorako eta taldeko eztabaidarako Simonen lanak irakurtzea gomendatuko da.

12 ordu. 6 saio.

Egutegia: Martitzenetan. Martxoaren 20tik maiatzaren 15era.

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.

Matrikula: 5 €.

Lekua: Kofradia zaharra.



Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna

"Nomantxakolorea", hilekoa birpentsatzen

Prestatzailea: Miren Guillo eta Mireia Delgado (Nomantxakolorea).

Tailer hau gonbidapen bat da hilekoaren eta honen inguruan sorturiko praktiken gainean hausnarketa egiteko. Hilekoa, sinbolikoki zikina eta kutsakorra kontsideratu izan da. Norberaren bizipenetatik abiatuta, interesgarria izango da gorputzei buruz pentsatu, hilekoaren dimentsio desberdinak jorratu, edota hilekoaren odola kudeatzeko praktika desberdinak ezagutzea, esanahi berrietan pentsatu ahal izateko. Denon artean, hilekoan birpentsatuko dugu, hausnarketa feminista kolektibo bat josiz. Gure odolak ez du zikintzen, margotu baizik. Jolastu nahi?

6 ordu. Saio 1.

Egutegia: Azaroak 19 (zapatua).

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Matrikula: 5 €.

Lekua: Kofradia zaharra.

Gorputzarekin bat

Prestatzailea: Josune Montón (antzerki pedagogo).

Festa-gorputza. Lotsa-gorputza. Olgeta-gorputza. Kontrolik eza gorputza. Gorputz osoko mina gorputza. Negar-gorputza. Bihotz-gorputza.

Tailer honen bidez gure gorputzarekin bat egingo dugu, gorputzaren bidez esperimintatzeko.

Elkar ezagutzeko jolasak proposatzen dizkizuet. Gure buruaren kontzientzia izateko eta baldintzak hausteko jolasak.

Taldearekin batera nork bere barrualdea bizitzeko bidaia izango da.

10 ordu.

Egutegia: Otsailak 24 eta 25.

Ordutegia: Barikuan: 18:00etatik 21:00etara.

Zapatuan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Lekua: Kofradia zaharra.

Emakumeen denbora

Tiempo en femenino

Prestatzaileak: Inma Merino eta Miriam Herbón (feministak eta formatzaileak).

Jendarteak sortutakoa da denbora-espazioaren kontzeptua, ezberdina jendarte bakoitzean eta ezberdina une historikoaren, kulturaren, bizi aroaren arabera... eta jakina! ezberdina ere generoaren arabera. Zelan bizi dugu emakumeok "denbora" edo haren falta? Zertan ematen dugu denbora? Oparitzen dugu ala elkarbanatzen dugu?

El concepto de tiempo-espacio es un constructo social diferente en cada sociedad, momento histórico, cultura, ciclo vital... y por supuesto diferente para cada género. ¿Cómo vivimos las mujeres "el tiempo" o la falta de él? ¿En qué lo empleamos? ¿Lo regalamos o lo compartimos?

12 ordu. 2 orduko 6 saio.

Egutegia: hamabostaldian behin, astelehenetan, otsailetik maiatzera: otsailak 6 eta 20, martxoak 5 eta 19, apirilak 16 eta 30.

Ordutegia: 16:00etatik 18:00etara.

Matrikula: 5 € (Boga-Bogako bazkideentzat dohainik).

Lekua: Boga-Boga emakume elkartearen lokaletan. Gazteleraz izango da.



Kultura birdefinitzea

Grafikak hirian. Esparru publikoa aktibatzen

Prestatzailea: Izaskun Alvarez Gainza (artista eta diseinatzailea).

Ikastaroa zuzenduta dago artearen adierazpidean interesatuta dauden emakumeei. Ez da beharrezkoa baina, aurretik ezagupenak izatea. Ikastaroa proiektu pertsonalak garatzeko izango da; baina, talde proiektua landuko da, batez ere, Ondarroako espazio publikoan kokatua eta oinarrituta, espazio hori grafikoki aktibatzeko asmoarekin.

20 ordu.

Egutegia: zapatuetan: Urriaren 15etik 29ra.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Matrikula: 5 €.

Lekua: Kofradia zaharra (Alde praktikoa: "7 emakume en movimiento" Ondarroako emakume artisten lokalean).

Geografia feministak euskal literaturan

Prestatzailea: Iratxe Retolaza (literatura irakaslea).

Literaturara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, espazioaren edo geografiaren eraikuntzaren eta errepresentazioaren inguruko hausnarrera bilduko den begirada; eta bestetik, begirada feminista. Bidegurutze horretan, literatura eta espazioaren arteko arteko harremanaz gogoetabideak zabaltzea izango da helburu nagusia, betiere ikuspegi feminista abiapuntutzat hartuz.

8 ordu.

Egutegia: Urtarrilak 27-28.

Ordutegia: Barikua: 17:00etatik 21:00etara.
Zapata: 10:00etatik 14:00etara.

Matrikula: 5 €.

Lekua: Udal Hitzaldi aretoa/Guzur etxea.

Banda feminista

Prestatzailea: Ondarroako Andrabanda Feminista.

Ondarroako Andrabanda Feminista elkarte sortu berria Jabekuntza eskolaren barrutik ateratako proiektua da. Bere helburua da emakumeentzako perkusio eta ahots "banda" bat martxan izatea, filosofia feminista duena oinarri. Era horretara, emakumeon jabekuntza pertsonala eta kolektiboa sustatuko du, emakumeen presentzia eta protagonismoa bultzatuz esparru publikoan eta aldarrikapen feminista zabalduz.

Andrabandako partaideek erakutsiko digute orain arte ikasitakoa eta banda feministen filosofia ere ezagutaraziko dute eskola barruan. Beraiekin bat egin nahi baduzu, eman izena!

Plaza-kopurua mugatua izango da: gehienez ere, 12 ikasle onartuko dira.

Nori zuzendua? 16 urtetik gorako emakumeei.

Egutegia: Urtarrilak 14 eta 21, otsailak 4 eta 18.

Ordutegia: 10:30etik 13:30era.

Matrikula: 5 €.

Lekua: Musika Eskola.

Bigarren maila

Soilik Banda feministaren ikastaroa egin dutenentzat.

Banda feminista: hiriko danborrak, hotsak, testuak eta kale antzezpenetako mugimenduak ikuspegi feminista batetik. / Taller banda para mujeres en tambores urbanos, voces, textos y movimientos escénicos callejeros desde una perspectiva feminista.

Prestatzailea: Silvia Palumbo (feminista eta kantautore argentinarra).

Plaza kopurua mugatua izango da.

Egutegia: apirila-maiatza.

Ordutegia: zehaztu barik.

Matrikula: 5 €.

Gazteleraz izango da.

Litografia ikastaroa

Prestatzailea: Josune Laka ("7 emakume en movimiento" elkarteko kidea).

Ikastaro baten bitartez litografia teknikak gauzatzea. Tailer horren helburua da litografiaren tekniketan murgilaraztea: estanzazio-prozesua, papera prestatzea eta abar. Materialaren hornidura "7 emakume en movimiento" elkartearen kontura da.

Egutegia: Maiatzaren 21etik 25era.

Ordutegia: 18:00etaik 21:00etara.

Matrikula: 5 €.

Lekua: Elkartearen lokalean (Artibai 8).

Informazio gehiago jasotzeko:

ONDARROAKO UDAL BERDINTASUN SAILA

Musika plaza z/g

Telefonoa: 94 683 36 70

emakume@ondarroakoudala.net

